

ETIKA PUBLIKOKO BATZORDEA

7/2013 AUZIA

ERABAKIA, (...) -K EGINDAKO KONTSULTA HONI BURUZKOA: ESKATZAILEAK KARRERAKO FUNTZIONARIO GISA DAGOKION AUKERA BALIATU NAHI DU (...) ZERBITZUETAKO LANPOSTU-ZERRENDEN ALDAKETA APLIKATU DAKION JABETZAN DUEN DOTAZIOARI.

1.- Interesdunak, 2013ko azaroaren 13an Etika Publikorako Batzordean (aurrerantzean, EPB) erregistratutako idazkiaren bidez, galdetu du ea Etika eta Jokabide Kodearekin (aurrerantzean, EJK) bateragarria ote den sail horretako Zerbitzu zuzendariak eskaini dion aukera baliatzea; izan ere, interesdunak –egun, zerbitzu berezietan– eskatu du Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko karrerako funtzionario gisa duen lanpostuaren gainean izapidetzen ari den destino-aldaketa aplikatu dakion jabetzan duen lanpostuaren dotazioari.

2.- Interesdunak, horretarako eskaini zitzaion epean, aukera hori eskatua zuen, hau da, lanpostu-aldaketa hori bere titularitateko dotazioari aplikatzeko aukera. Baina, kautela moduan, eskaera hori eraginik gabe utzi du, harik eta EPBri egindako kontsultaren emaitza jakin arte.

3.- Kontsulta hori dela-eta, EPB Etika Publikorako Batzordeak honako erabaki hau hartu du:

ERABAKIA:

I. AURREKARIAK

1.- EJK, Eusko Jaurlaritzaren Kontseiluak 2013ko maiatzaren 28an onartua, politikaren etikazentzua berreskuratzeko asmoz sortu zen, bai eta herritarrek erakundeetan konfiantza berreskuratzeko neurri gisa ere.

Horretarako, Etika eta Jokabide Kodearen asmoa da identifikatzea zer jokabide eta portaera eska dakizkiekeen Eusko Jaurlaritzako goi mailako zuzendaritza betearazleko kide diren kargu publikoei, haien jarduera publikoak eta pribatuak guztiz bat etor daitezzen dokumentu horretan aurrez zehaztutako balio, oinarri eta jokabide-estandarrekin. Xedea da, hain zuzen, integritatea eta eredugarritasuna sustatzea, Jaurlaritzaren irudia zaintzea, haren eraginkortasuna indartzea eta bermatzea
herritarrek erakundeengan duten konfiantza ez dutela galduko.



2.- EJK-k bost balio ditu ardatz: integritatea, bikaintasuna, politika eta kudeaketa bat etorraraztea, lidergoa, eta berrikuntza. Gainera, funtsezko sei printzipio ditu: inpartzialtasuna eta objektibotasuna; kudeaketari lotutako erantzukizuna; gardentasuna eta gobernatze irekia; onestasuna eta desinteres subjektiboa; errespetua; eta eredugarritasuna.

Balio eta printzipio horien esparruan, portaera-, jokaera- eta jokabide-katalogo zabal bat biltzen da Kodean, eta, hain zuzen ere, katalogo hori hartu behar du EJK-k erreferentzia-parametrotzat, Kodea borondatez onartu duten kargu publikodunek mahai gainean jartzen dituzten auziei eta zalantzei erantzuna emateko.

Azken alderdi horri dagokionez, Kodearen 16.3 atalak honako hau dio: "Etika Publikorako Batzordea izango da oharpen, kontsulta eta iradokizunak jasotzeko eskumena izango duen organoa. Halaber, Kode honetan ezarritako aurreikuspenetan adierazitako egokitzapen-proposamenak gauzatzeko prozedura jasoko du."

II. ETIKA PUBLIKORAKO BATZORDEARI AURKEZTUTAKO AUZIA, IRITZIA EMAN DEZAN

1.- (...) Sailean, lanpostu-zerrendaren aldaketa bat izapidetzen ari da , **(...) Zerbitzuei eragiten diena**. Aldaketa horrek, funtsean, berekin ekarriko du **(...) lanpostuaren dotazioei esleitutako destinoa aldatzea**, hau da, lekuz aldatzea.

2.- Destino-aldaketak **zein dotaziori eragingo dien identifikatzeko**, aintzat hartuko dira egun indarrean den lan-baldintzen Akordioan bildutako irizpideak; hau da, lehendabizi, eragindakoen borondatea, eta, boluntarioak gehiago baldin badira lekuz aldatu beharreko dotazioak baino, irizpide hauek hartuko dira kontuan, hurrenkera honetan: lanpostuarekiko lotura –lanpostuen titular direnek izango dute lehentasuna–, eta titular direnetik lanpostuan emandako denbora (alde horretatik, zerbitzu berezietan emandako denbora ere zenbatu egingo da).

3.- Interesduna, **Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko karrerako funtzionarioa izanik, aldaketa-espediente horren menpeko lanpostuaren dotazioetako baten titularra da** .

4.- Interesdunak, kontsulta-idazkian adierazten duenez, **interesa dauka lanpostuaren destino-aldaketa aplikatu dadin jabetzan duen dotazioan**, eta, gainera, honako hau jakinarazten du:

- a) Ez du alde aurretik jakin zein diren Zerbitzua eraldatzeko proposamenean kontuan hartu diren berrikuntza-irizpideak.
- b) (...)
- c) Ez du parte hartu bere kontsultan aipatzen den lanpostu-zerrendaren aldaketa-prozesuan, eta ez du horren berririk izan, nahiz eta haren eraginpean egon.



- d) Idatziz eta horretarako eman zitzaion epearen barruan adierazi zuen eduki baduela interesa dotazio batzuetan egingo den destino-aldaketa bere titularitateko dotazioan aplikatu dadin, baina, betiere **EPBk bere kontsultari zer erantzungo zain geratuko da.**

5.- Adierazitakoarekin bat, interesdunak kontsulta bat aurkeztu zion **EPBri**, honako auzi honi buruzko iritzia eman zezan:

"Bere lanpostuaren destino-aldaketa eskatu izanak urratu egiten al ditu kargu publikodunen eta behin-behineko langileen Etika eta Jokabide Kodean bildutako balioak, printzipioak edo jokabideak? eta, urratu egiten al du zintzotasun-printzipioa? Betiere, zintzotasunaz, honako hau ulertuta: "jokabide zuzen, zintzo eta prestua izateak dakar berekin, hitza eta jokaera kasu bakoitzean zuzentzat jotakora egokitzea, bidegabeko abantailak baztertzea eta ez erabiltzea karguari lotutako pribilegioak ezein onura-mota lortzeko"

6.- Kontsulta hori ebazteko beharrezko diren aurrekariak ezagutze aldera, Etika Batzordeko idazkariak **argibideak eskatu zizkion (...)** Saileko Zerbitzu zuzendariari, honako alderdi hauei buruz:

- a) Interesdunak betetzen duen behin-behineko langileentzako lanpostuaren identifikazioa, funtzioak, eta haien eremua. Horrekin batera, kontsultaren xedea kontuan hartuta, baliagarria izan liteke jakitea langileak ez duela inolako funtziorik betetzen funtzio publikoaren arloan, hala bada.
- b) Interesdunak parte hartu al du eskaeran aipatzen den espedientean? Eta, parte hartu baldin badu, karrerako funtzionario gisa izan al da, ala egun betetzen duen behin-behineko langile-postutik?

7.- Zerbitzu zuzendariak **bidali egin du eskatutako informazioa**, behin-behineko lanpostuaren funtzioak zehaztuta, eta honako hauek adierazita:

- a) Interesdunak egun betetzen duen "aholkulari-lanpostuaren" funtzioek **ez dute zerikusirik funtzio publikoaren eremuarekin.**
- b) Erabaki honetan aipatzen den lanpostu-zerrendaren aldaketa-espedientean izan duen parte-hartzeari dagokionez, Zerbitzu zuzendariak hala eskatu dionean baino ez du parte hartu interesdunak, **eta, betiere karrerako funtzionario-lanpostu baten titular den aldetik.**

III. KONTSIDERAZIOAK

1.- Lehendabizi, adierazi beharra dago kasu honetan **auzia ez dela aztertzea interesdunaren jokaera etikoa izan den, kontsultan aipatzen den prozedura administratiboaren izapidetzean edo hura ebaztean izandako arduragatik.** Izan ere, saileko Zerbitzu zuzendariak emandako informazioaren arabera, argi eta garbi geratu da interesdunak, aholkulari den aldetik, ez duela



inolako zereginik betetzen Funtzio Publikoaren eremuan. Egia da, bestalde, (...) egiten eta prestatzen aritzen dela, eta, zeregin horien artean, funtzio publikoarekin lotutako legegintza-ekimenak egon litezkeela. Baina, horrek ez dio inondik ere ematen arlo horretako betearazpen- eta kudeaketa-eskumenik.

Aitzitik, interesdunak zerbitzu berezietan dagoen karrerako funtzionario den aldetik parte hartu du bere titularitateko dotazioari eragiten dion lanpostu-zerrendaren aldaketa-espeditentean. Hortaz, herritar bat besterik ez da espediente horretan, partikular bat, administrazio publikoarekin lotura berezi bat duena.

Hori dela-eta, ez dugu planteatu behar egokia ote den interesdunak espediente horretan parte hartzea, edo hobe ote zuen abstenitzea, bera ez baita espedientea izapidetzeko edo ebazteko organo eskuduneko arduraduna.

Gauzak horrela, interesdunak bere titularitateko dotazioari eragiten dion lanpostu-zerrendaren aldaketa dela-eta egoki jokatu ote duen erabakitze aldera, EJKn jasotako errespetu-balioak baino ez ditu kontuan hartu behar Batzorde honek: **alegia, aztertu behar du Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta Instituzionaleko kargu publikodunek eta behin-behineko langileek balio horiek errespetatzen dituzten ala ez.**

2. Kontsulta oso zabala da , **EPBri eskatzen baitio** izandako jokabidea alderatzeko EJKn bildutako printzipio, balio eta jokabideekin. Hortaz, nahitaezkoa da arretaz aztertzea kontsultaren auziarekin lotura espezifikoa izan dezaketen Kodearen balio-, printzipio- eta jokabide-multzo osoa.

Hala, kontsultaren gaia EJK osatzen duten balio, printzipio eta jokabide edo portaeren ikuspegitik aztertuta, eta, Kodean, kargu publikodunen eta parekatuen jardunaren berri ematen duten balioak ikusita, nabarmena da auziak lotura espezifikoa daukala **integritatearen balioarekin**. Horretaz gainera, auzi horretan, badira eraginda gerta litezkeen beste balio batzuk, hala nola **inpartzialtasuna eta objektibotasuna, zintzotasuna eta desinteres subjektiboa, eta eredugarritasuna.**

Hortaz, kontsultaren gaiak Kodearen zenbait balio eta printzipioekin lotura espezifikoa izaki, bereziki honako **jokabide eta portaera hauek izango ditugu aztergai:**

- a) **Kargu publikodunen integritatea, inpartzialtasuna eta objektibotasuna.**
- b) Kargua bete bitartean, jarduera pribatuak edo publikoak dituzten kargu publikodunen eta parekatuen desinteres subjektiboari eta interes-gatazkak saihesteari lotutako jokabideak.
- c) Eredugarritasuna **eta kanpoko beste adierazpen batzuk.**

3.- Hasteko, aztergai izango ditugu **integritateari, inpartzialtasunari eta objektibotasunari lotutako printzipioak, balioak, eta jokabide eta portaerak, eta horiek alderatuko ditugu auziaren gaiarekin. Horretarako, abiapuntutzat hartuko ditugu Kodean bertan ematen diren definizioak integritateari, inpartzialtasunari eta objektibotasunari buruz:**

“4.1.1.– Integritatea.

Integritatea, kode honen ikuspuntutik, alde batetik, kargu publikodunek eta parekatutakoek honako hauei atxikimendu sistematiko eta iraunkorra izatea da: onetasun-, inpartzialtasun-, objektibotasun-, gardentasun-printzipioei, esparru juridikoaren errespetuari eta, zer diren gorabehera, ingurune publiko horretan esku hartzen duten edo harekin harremana duten pertsona guztiei; bestetik, beren eskumeneko gaien kudeaketan erantzukizun-parametroen arabera jokatzeko da.”

“5.2.1.- Inpartzialtasuna eta objektibotasuna.

Erabakiak hartzeko prozesuan eta, bereziki, beren eskumenak erabiliz egiten dituztenetan, kargu publikodunek beti jokatuko dute inpartzialtasun- eta objektibotasun-printzipioen arabera. Proiektu horiek, bereziki, kontratazio-prozeduretan, diru-laguntzak ebaztean, normen aplikazioan edo, azken batean, finantza-baliabideen edo bestelako erabilpenean baliatuko dira.”

Etika Kodearen 6. atalean, bildu egiten dira **kargu publikodun eta parekatuen integritateari, inpartzialtasunari eta objektibotasunari lotutako** jokabideak eta portaerak. Kontsultaren ondorioetarako, eta integritatearen balioari eta inpartzialtasun- eta objektibotasun-printzipioei dagokienez, atal horretan adierazten da kargu publikodun eta parekatuek besteak beste honako jokabide eta portaera hauek egiaztatu behar dituztela:

- a) "Ez du egingo pertsona edo erakunde publiko edo pribatu batzuen alde edo faboritismo-nahiak eraginda jokatu duelako edozein susmo pitz dezakeen ezer.
- b) Inoiz ez ditu erabiliko postu instituzionala edo karguaren ondoriozko pribilegioak zuzenean edo zeharka abantailak lortzeko norberarentzat, hala nola abantailak edo desabantailak lortzeko edozein pertsona edo erakunderentzat, betiere neurri horiek ez badaude babestuta indarreko araudi-esparruan.”

Integritateari, inpartzialtasunari eta objektibotasunari erreferentzia egiten dieten EJKko atalak identifikatu ondoren, **atal horien edukia alderatu beharra dago interesdunak baliatu nahi duen aukerarekin.**

4.- Lehendabizi, adierazi beharra dago printzipio horiekin lotutako balio eta jokabideek, funtsean, erreferentzia egiten diotela kargu publikodunek euren jardunean duten jokaerari, hau da, kargu baten titular diren aldetik eta erantzukizunaren jardunean hartzen dituzten erabakiei –edo har ditzaketenei- eta gauzatzen dituzten jardunei –edo gauzatu ditzaketenei.

Bestalde, ezin ukatu kargu baten jardunean norbere mesedetan aritu daitekeela, edo senideen, ingurukoen edo hirugarrenen mesedetan, nahiz eta halako jokaerak, itxura batean, karguaren berezko jardun-esparruetatik kanpo egon. EJKren 6. ataleko bigarren puntua posibilitate horretaz ari da, zalantzarik gabe, eta, horregatik, debekatu egiten du halakoak egitea Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazio Orokorraren eremuan. Izan ere, 6. ataleko bigarren puntu horrek dio kargu publikodunek «postu instituzionala» edo «karguaren ondoriozko pribilegioak» baliatu ditzaketela «zuzenean edo zeharka abantailak lortzeko norberarentzat» edo «abantailak edo desabantailak lortzeko edozein pertsona edo erakunderentzat».

Saileko Zerbitzu zuzendariak jakinarazi duenez, interesdunak betetzen duen aholkulari lanpostuaren funtzioek ez dute loturarik funtzio publikoarekin, eta, hortaz, auzi hori integritate-, inpartzialtasun- eta objektibitate-printzipioen ikuspegitik aztertu beharra dago. Horrenbestez, auzia ez da goi-kargudun batek nolako jokabidea duen bere funtzioen jardunean, baizik eta «postu instituzionala» edo «karguaren ondoriozko pribilegioak» baliatu ote dituen bere edo hirugarrenen mesedetan, bere eskumeneko ez diren eremuetan.

Alde horretatik, Zerbitzu zuzendariak adierazitakoaren haritik, gogora ekarri behar da interesdunak ez duela hasi, ez sustatu, ez bultzatu lanpostu-zerrenda aldatzeari buruzko espedientea, kontsultan aipatzen dena. Beraz, inolako zalantzarik gabe, berak ez zuen parte hartu espedientearen hasieran, eta ez zuen bere kargua horretarako baliatu, ez baitzuen horretan esku hartzerik izan.

Bestalde, espedientea abian jarri ondoren –indarreko arau eta prozeduretan ezarritakoari zorrotz jarraituz abian jarri ere–, lehendik ezarrita zeuden arau-multzo bati jarraikiz izapidetu behar da. Baina, interesdunak ezin izan du parte hartu aurretiazko arau horiek prestatzeko lanetan, ez baitzuen inolako kargurik betetzen funtzio publikoaren arloan, ez orduan, ez gaur egun.

Interesdunak, hortaz, karrerako funtzionario den aldetik, eta horretarako eman zitzaion epearen barruan, baino ez du parte hartu bere titularitateko lanpostuaren aldaketa-espedientearen. Epe hori eman zitzaion, prozeduraren eraginpean dauden gainerako funtzionarioei bezala, hain zuzen ere adierazi zezan interesik zuen ala ez lanpostuaren aldaketa bere titularitateko dotazioan aplikatu zedin. Aholkulari izateak ez dauka zeharkako edo zuzeneko eraginik, ez eragin efektiborik, ez birtualik espedientearen izapidetzean, ez eta hura izapidetzeko arauen definizioan ere.

Hori horrela izanik, **ez da hauteman integritate-, inpartzialtasun- eta objektibotasun-printzipioak eta horiei dagozkien balio eta jokabideak urratu direnik, interesdunak bere titularitateko dotazioaren destinoa aldatzeko interesa adierazteagatik.** Izan ere, lehenago azaldu bezala, karrerako funtzionario gisa dagozkion eskubideen jabe partikularra den aldetik baino ez du parte hartu espedientearen, eta espediente horren emaitza –adierazitako interesaren aldekoa edo aurkakoa– lehendik ezarrita zeuden arau juridiko orokorren menpe egongo da.

6.- Ondoren, aintzat hartu behar ditugu **onestasunari, desinteres subjektiboari eta kargu publikodunek eta parekatuek interes-gatazkak saihesteari lotutako printzipioak, balioak eta jokabide eta portaerak, Kodean bildutakoak,** kontsultaren xedearekin eta inguruabarrekin lotuta baitaude.

Atal honetan ere, Kodean bildutako definizioak hartuko ditugu **abiapuntutzat:**

"5.2.4.- Onestasuna eta desinteres subjektiboa.

Kargu publikodunak bere eginkizunak zuzen betetzea eragotz edo traba dezakeen interes publiko edo pribatu oro aitortu behar du, eta beharrezko urratsak egingo ditu edozein interes-gatazka konpontzeko, organo eskudunei horrelako edozein gorabehera jakinaraziz, garrantzi txikienekoa izanda ere. Horren ondorio da, halaber, erabaki guztiak interes publikoaren eta herritarren onurarako baino ezin hartu ahal izatea, eta guztiz baztertua erabaki edo ebazpen bat hura hartzen duen pertsonaren, haren senideen, ezagunen edo lagunen mesederakoa nahiz edozein motatako interes partikularrek eragindakoa izan daitekeelako edozein susmo edo zalantza".

"11.5.- Onestasunak jokabide zuzen, zintzo eta prestua izatea dakar berekin, hitza eta jokaera kasu bakoitzean zuzentzat jotakora egokitzea, bidegabeko abantailak baztertua eta ez erabiltzea karguari lotutako pribilegioak ezin onura-mota lortzeko".

"11.6.- Era berean, kargu publikoan jokabide onesta izatearen ondorio da gauza izatea egiazkotasuna eta sinesgarritasuna adierazteko, eta ez engainatzea, nahastea edo estaltzea konpondu beharreko arazoak".

EJKren 11. atalean, **bildu egiten dira onestasanari, desinteres subjektiboari eta kargu publikodunek izan ditzaketen interes-gatazkak saihesteari lotutako jokabideak eta portaerak**, eta, atal horretan, gainera, jokabide horiek, nagusiki, bi motatakoak izan daitezkeela adierazten da: interes-gatazkak sor ditzaketen jokabideak, eta opariekin eta litezkeen mozkinekin zerikusia duten jokabideak.

Kontsultaren xedea zein den aintzat hartuta, aztergai izango ditugu interes-gatazkak saihestera bideratutako jokabideak; eta, zehazki, era honetako gatazkak aztertuko ditugu: kargu publikodunen interesen eta kargudun horien interes pribatu, zuzeneko senideen interes edo hirugarren pertsonekin partekatutako interesen arteko gatazkak.

Aipatutako atalean azaltzen denez, interes-gatazkak sortzen dira kargu publikodunek eta parekatuek zenbait erabaki hartu behar dituztenean non batera ageri diren euren postu publikoaren interesak eta norbere interes pribatuak, zuzeneko senideen interesak edo hirugarren pertsonekin partekatutakoak. Ildo horretatik, atal horrek azpimarratzen du zein diren kargu publikodunek eta parekatuek dituzten betebeharrak interes propioek eta interes publikoek talka egiten duten egoeretan, betiere alde batera utzi gabe Legean ezarrita dauden betebeharrak. Besteak beste, honako betebeharrak hauek biltzen dira Kodearen atal horretan:

- "Edozein erabaki edo jardueratan interes propioek eta interes publikoak talka egiten badute, horren berri eman beharko dute jendaurrean, eta inoiz ez dute ezer egingo baldin eta egin beharreko horretan zuzeneko edo zeharkako interes pertsonala badute, edo litekeena bada aipatutako interes-borroka piztea
- Ez du inolako negoziarik edo jarduerarik egingo, zuzenean edo zeharka talka egin badezake interes publikoekin, edo zalantza jar badezake erabakiak hartzeko prozesuaren edo Herri Administrazioaren funtzionamenduaren objektibotasuna.
- Bere betebeharrekin eta erantzukizunekin talka egiten duen edo egin dezakeen interes-gatazka posible baten eraginpean egon daitekeen kargu publikodunak berehala jakinarazi beharko dio hori Etika Batzordeari eta, idatzita ahal bada, gatazka horren berri eman beharko du, edo, bestela, gutxienez, unean bertan edo etorkizunean balizko interes-gatazka bat egon daitekeelako zalantza jakinarazteko betebeharra du. Idazkiak aipatu organo horren erantzuna jasoko du berehala. Interes-gatazka bat pizten bada, edo gatazka hori egon daitekeelako zalantza sortzen bada, kargu publikodunak, erakundearen izen ona zaintzeko kautelazko neurri gisa, ez du esku hartuko ezer erabakitzeko edozein prozesutan, prozesuan esku hartuta interes-gatazka bat pizteko zalantza txikiena ere egonez gero.
- Kargu publikodun eta parekatuek, aurreko atalean aurreikusitako egoeretako batean badaude, nagusi hierarkikoaren esku utzi beharko dituzte beren ardurak, edo, bestela, egoera horietako ezeinetan ez dagoen saileko edo erakundeko beste kargu publikodunen baten esku".

EJKn zintzotasunari eta desinteres subjektiboari erreferentzia egiten dieten atalak azaldu ondoren, kontsultan planteatutako egoera aztertuko dugu, **hain zuzen ere erabakitzeko eremu horri buruzko printzipio, balio eta jokabideren bat urratu den edo urratu daitekeen**.



Kodean, integritatearen eta antzeko printzipioen arloan gertatzen zen bezala, zintzotasunaz eta desinteres subjektiboaz ematen diren definizioek ardatz dute kargu publikodunek beren jardunean gauzaten dituzten egitekoak, funtzioak eta zereginak. Nolanahi ere, lehenago adierazi bezala, kontsultaren xede den jardun-arloan, interesdunak ez du behin-behineko langile moduan jarduten; partikular moduan baizik; zehazki Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko karrerako funtzionario gisa dagozkion eskubideak baliatzen dituen partikular moduan.

Hori dela-eta, aztergai dugun egoeran, helburua ez da analizatzea interesduna, behin-behineko langile-postuan egiten dituen funtzio eta zereginen jardunean, interes-gatazka baten eraginpean ote dagoen, non bere interesek edo bere ingurukoek eta berak zerbitzutu beharreko interes orokorrek talka egiten duten. Hain zuzen ere, kontrako egoeran gaude; hau da, aztertu beharra dago interesdunak behin-behineko langile gisa zerbitzatu beharreko interes orokorra modu batera edo bestera urratu duen, pertsona partikular gisa eta, zehazki, karrerako funtzionario gisa dagozkion eskubideak baliatzean, karrerako funtzionarioa baitzen behin-behineko lanpostu bat bete aurretik.

Aurretik azaldu bezala, interesdunak ez du inola ere parte hartu lanpostu-zerrenda aldatzeko espedientearen hasieran –kontsulta honen xede dena–. Hori dela-eta, **ezin da planteatu ere egin egun betetzen duen behin-behineko postua baliatu duenik espedientearen sorreran edo sustapenean parte hartzeko.**

Horrekin batera, jakin badakigu ez duela inolako eginkizunik betetzen funtzio publikoaren arloan, izan ere, egun betetzen duen lanpostuari dagozkion funtzioak kontuan hartuta, langileen kudeaketaren arloan aritzeko duen bide bakarra da lege-testuak prestatzen laguntzea; baina ezin du inola ere jardun administrazio-espedienteak kudeatzen eta ebazten.

Ondorioz, kontuan hartuta interesdunak ez duela inola ere parte hartu kontsultaren xede den espedientearen –edo, behintzat, beste edozeinek bezala esku hartu duela, hau da, zenbait dotazioen destino-aldaketaren eraginpean dagoen eta interesa edo desinteresa adierazi duen beste edozeinek bezala–, **ezin da planteatu ere egin egun betetzen duen lanpostuaz baliatu daitekeenik espedientearen kudeaketan eta ebazpenean eragiteko.** Gainera, zein dotazio aldatuko diren erabakitzeko, arau objektiboak eta orokorrak aplikatuko dira, egun betetzen duen behin-behineko lanpostuan hasi baino lehenagokoak.

Azkenik, auzi honetan gerta litekeen interes-gatazkaren hipotesia ixteko, galdera hau egin genezake: bere titularitateko dotazioen destinoa aldatzeko interesa adierazi izanak eragozten al du egun betetzen duen lanpostuaren interes orokorrak zerbitzatzeari? Puntu horri dagokionez, aintzat hartu behar dugu, berriz ere, egun behin-behineko lanpostuan ez duela betetzen funtzio publikoaren arloko inolako eginkizunik. Ondorioz, **ez dira kontrajarriak karrerako funtzionario gisa dituen eskubideak baliatzea eta egungo destinoan zerbitzatu behar dituen interes orokorren alde egitea.**

5.- Auzi hau ebazteko, bestalde, EJKn bildutako hirugarren jokabide-mota ere aztertu beharrean gaude: **eredugarritasuna eta kanpoko beste adierazpen batzuk.**



Beste jokabide motak aztertzean egin dugun bezala, oraingoan ere, Kodearen edukia behar bezala interpretatzeko eta aplikatzeko, abiapuntutzat hartuko ditugu **Kodean bertan ematen diren definizioak**:

5.2.6. - Eredugarritasuna.

Kargu publikodun eta parekatuak, bereziki gobernu- edo erakunde-egituretan postu nagusiren bat betetzen badu, erakundearen ispilua dira, herritarrei bezala erakunde publiko horretan diharduten gainerako pertsoneri ere erakundearen irudia itzultzen diena, eta, horregatik, ez du ezer egin behar edo egin gabe utzi behar horrek kalte egiten badiu, txikiena izanda ere, Euskadiko Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorra eta Instituzionalaren ospe, duintasun eta irudi instituzionalari, herritarrek sistema instituzionalean duten konfiantza ez gutxitzeko".

Eredugarritasunari eta kanpoko beste adierazpen batzuei buruzko jokabide eta portaerak EJKren 15. atalean biltzen dira. Esku artean dugun kontsultari dagokionez, atal horretako zenbait jokabide aztertu beharrean gaude. Hona hemen:

- Kargu publikodunek eta parekoek ez dute inolaz ere jokatu behar, ez ekitaldi publikoetan, ez eta pribatuetan ere, ordezkatzan duten edo zerbitzatzan duten erakundearen irudia kaltetzea ekar dezaketen jardunbide edo jarreraren arabera.
- Edozein kargu publikodunek izan behar duen eredugarritasun publikoaren irudia zuzenean kaltetzen duten ekintza, jardunbide zein gertaerek zuzenean kaltetzen badute herritarrek erakundeaz duten irudia, eta ordezkatzan duten erakundearen ospean eragina badute, Etika Publikorako Batzordeari jakinaraziko zaizkio. Batzordeak aztertu beharko ditu horiek guztiak, eta kasu bakoitzari dagokion gomendioak emango ditu.
- Zuzendaritza-funtzioak dituzten kargu publikodun eta parekatuek jardunbide eredugarria izan behar dute jarduera pertsonaletan, eta inguru etikoa sustatu behar dute dagozkien erakundeetan. Izan ere, bertan lanean diharduten gainerako pertsonentzat, hedabideentzat, eta batez ere, jardun publikoak etengabe ikusten eta aztertzen dituzten herritarrentzat eredu izateko erantzukizuna dute beren gain.

Jasota geratu dira, beraz, EJKn eredugarritasunari buruz biltzen diren zehaztapenak, kontsultan aipatzen den egoerarekin benetako lotura izan dezaketenak. Ondoren, **zehaztapen horiek alderatuko ditugu interesdunaren jokabidearekin** –berak interesa adierazi du karrerako funtzionario gisa jabetzan duen dotazioaren destinoa aldatzeko, eta eskubide hori baliatzea Etika Publikorako Batzordeari egin dion kontsultaren menpe jarri du.

Eredugarritasun-printzipioaren xedea hau da: kargu publikodunek eta parekatuek ez dute inola ere jokatu behar administrazioaren ospearen, duintasunaren edo erakunde-irudiaren kaltetan

Erabaki honetako aurreko ataletan adierazi bezala, interesdunak ez du jokatu kargu publikodun edo parekatu gisa, pertsona partikular gisa baizik; zehazki, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko karrerako funtzionario gisa.

Horregatik, kontrako ikuspegitik aztertu behar dugu eredugarritasun-printzipioa erasanda izan den ala ez; hau da, zehaztu behar dugu partikular gisa –karrerako funtzionario gisa– auzi honetan izan duen jokabideak kalterik egin ote dien administrazioaren ospeari, duintasunari edo erakunde-irudiari, egun interesduna behin-behineko langileentzako postu batean baitago.

Bistan denez, kargu publikodunei eta parekatuei ezin zaie eskatu jardueran dauden bitartean uko egiteko euren bizitzako edozein arlotan herritar gisa dagozkien eskubideei, betiere

eskubide horiek baliatzeak kalterik egiten ez badio behin-behineko langile-postuan bete beharreko jarduerari eta interes orokorrari.

Hori dela-eta, auzi honetan eredugarritasun-printzipioa eta dagozkion balio eta jokabideak urratu diren aztertzeko, aurreko ataletan egindako analisiari heldu beharko diogu berriz ere, hau da: aztertu beharko dugu integritate, inpartzialtasun, objektibotasun, zintzotasun eta desinteres objektiboaren printzipioak urratu diren ala ez. Interesdunak eskubide hori baliatzea printzipio horien aurkakoa ez denez, **ez die inola ere kalterik egin administrazioaren ospeari, duintasunari edo erakunde-irudiari.**

Aurreko guztia aintzat hartuta, EPBk erabaki hau hartu du:

ERABAKIA

Lehenengoa.- Interesdunak karrerako funtzionario gisa jabetzan duen dotazioaren destinoa aldatzeko interesa duela adierazi du, eta jakin nahi du interes hori bateraezina den EJKn bildutako printzipio, balio eta jokabideekin; horretarako irizpen bat eskatzen du. **Kontsulta hori oso zabala denez, Batzorde honek erabaki du interesdunaren jokabidea aztertzeko, eta alderatzea Etika Kodearen printzipioen, balioen eta jokabideen esparru posible guztiekin, edukiaren eta/edo testuinguruaren ikuspuntutik.**

Bigarrena.- Integritate-, inpartzialtasun- eta objektibitate-printzipioak eta haiei dagozkien balio eta jokabideak urratu diren ala ez aztertuta, Batzordeak erabaki du **ez dela halakorik gertatu eta ez dagoela halakorik gertatzeko arriskurik.** Izan ere, interesdunak partikular gisa parte hartu du espedientearen, karrerako funtzionario gisa dagozkion eskubideen jabe, eta espediente horren emaitza lehendik ezarrita zeuden arau juridiko orokorrak zorrotz aplikatzearen ondorioz etorriko da.

Hirugarrena.- Zintzotasunaren eta desinteres subjektiboaren printzipioak eta haiei dagozkien balio eta jokabideak urratu diren ala ez aztertuta, Batzordeak erabaki hau hartu du:

- a) Kontuan hartuta interesdunak ez duela inola ere esku hartu kontsultaren xede den lanpostu-zerrenda aldatzeko espedientearen hasieran, **ezin da planteatu ere egin egun betetzen duen behin-behineko postua baliatu duenik espedientearen sorreran edo sustapenean esku hartzeko.**
- b) Gainera, ez du esku hartzerik izan kontsultan aipatzen den espedientearen –edo, behintzat, beste edozeinek bezala esku hartu du, hau da, zenbait dotazioaren destino-aldaketaren eraginpean dagoen eta interesa edo desinteresa adierazi duen beste edozeinek bezala–. **Ezin da esan, beraz, egun betetzen duen lanpostuaz baliatu daitekeenik espedientearen kudeaketan eta ebazpenean eragiteko.** Gainera, zein

dotazio aldatuko diren zehazteko, arau objektiboak eta orokorrak aplikatuko dira, egun betetzen duen behin-behineko lanpostuan hasi aurretik ezarrita zeudenak.

- c) Aintzat hartu behar da, bestalde, egun duen behin-behineko lanpostuan ez duela betetzen funtzio publikoaren arloko inolako eginkizunik. Ondorioz, **ez dira kontrajarriak karrerako funtzionario gisa dituen eskubideak baliatzea eta egungo destinoan zerbitzatu behar dituen interes orokorren alde egitea.**

Laugarrena-Eredugarritasun-printzipioa eta hari dagozkion balio eta jokabideak urratu diren ala ez aztertuta, Batzordeak erabaki hau hartu du:

- a) **Ezin da aztertu kargu publikodun gisa eredugarritasunez jardun duen al ez,** interesdunak ez baitu jardun kargu publikodun edo parekatu gisa, pertsona partikular gisa baizik; zehazki, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko karrerako funtzionario gisa.
- b) **Kardu publikodunei eta parekatuei, jardunean daudela, egoera bakar batean eskatu dakieke uko egiteko bizitzaren edozein esparrutan herritar gisa dagozkien eskubideei:** eskubide horiek baliatzeak nola edo hala eragina daukanean behin-behineko lanpostuan bete behar duten jardunean eta interes orokorrean. Hori dela-eta, auzi honetan eredugarritasun-printzipioa eta dagozkion balio eta jokabideak urratu diren analizatzeko, **aztertu behar dugu integritate, inpartzialtasun, objektibotasun, zintzotasun eta desinteres objektiboaren printzipioak urratu diren ala ez.**
- c) **Interesdunak ez dio inola ere kalterik egin Administraziaren ospuari, duintasunari edo erakunde-irudiari;** aitzitik, berak soilik adierazi du interesa duela lanpostuaren destino-aldaketa aplikatu dadin karrerako funtzionario gisa jabetzan duen dotazioan.

Bosgarrena- Batzordearen iritziz, **erabat zilegi da interesdunak karrerako funtzionario gisa dagozkion eskubideak baliatzea, eta, zehazki, zilegi da eskatzea bere dotazioan leku-aldaketa aplikatzeko** lanpostu-zerrendaren aldaketa-espedientearen barruan. Izan ere:

- a) Eskubide hori baliatzean, funtzionario gisa jarduten du, eta ez kargu publikodun gisa.
- b) Ez du espediente hori sustatu, eta ez zaio funtziorik eman, espedientearen izapidetzean eta ebazpenean esku hartzea ahalbidetzen dionik. Aintzat hartu beharra dago, gainera, arau orokor eta objektiboak –interesduna behin-behineko lanpostuan hasi baino lehenagokoak- aplikatuko direla zein dotazio aldatuko den erabakitzeke.
- c) Horrenbestez, jabetzan duen dotazioa lekuz aldatzeko egin duen eskaera bateragarria da, inondik ere, kargu publikodun gisa dituen funtzioekin edo bete behar dituen interes orokorrek, eta, gainera, ez dio inola ere kalterik egiten Administrazio Publikoaren irudiari edo ospuari.



Etika Publikorako Batzordea

Comisión de Ética Pública

Arantza Tapia Otaegi

Etika Publikorako Batzordeko lehendakaria

Vitoria-Gasteiz, 2013ko abenduaren 27a.